



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko urriaren 9a

121. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da gaueko txandako langileen lan baldintzak aldatzeko negoziazioa has dezan. Osasun Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da glukosaren monitorizatzeko jarraiturako sistemak eta glukosaren flash monitorizaziorako sistemak finantza ditzan. Osasun Batzordeak onetsia (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da sei hilabeteko moratoria bat ezar dezan Eskubide Sozietako Departamentuaren barruko fundazio publikoa sortzeko. Eskubide Sozietako Batzordeak ezetsi egin du (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Gerra Zibileko eta diktadurako artxiiboak berreskuratzeari buruzkoa. Laura Lucía Pérez Ruano andreak egin du (5. or.).
- Galdera, laborategi bateratuaren egoerari buruzkoa. Sergio Sayas López jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Elkarrizketa Sozialaren Kontseilua biltzeari buruz daukan aurreikuspenari buruzkoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenen eta Funtzio Publikoaren Estatutuaren nahiz garapen-arauen indarreko foru araudiaren arteko desadostasuna konpontze aldera bideratutako jarduketei buruzkoa. Mariano Herrero Ibáñez jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Familia Ugariei buruzko 2003ko Foru Legea eguneratzeari dagokionez Nafarroako Gobernuak daukan aurreikuspenari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak Nafarroako ingurumena hobetze aldera aurreikusten dituen ekintzei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (8. or.).
- Galdera, 2018ko ekitaldirako soldata-masa gehigarriaren % 0,30 banatzeko prozeduraren irizpide eta helburuei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (9. or.).

- Galdera, amatasun-prestazioak PFEZetik salbuetsita daudela adierazten duen Auzitegi Gorenaren epaia ikusita, bidegabeki jasotako diru-kopuruak itzultzeari buruzkoa. María Victoria Chivite Navascués andre-ak egin du (10. or.).
- Galdera, jakiteko zer balantzea egiten duen Gobernuak errenta bermatuaren eta Nafarroan pobreziaren aurka borrokatzearen aplikatutako bestelako neurrien eraginari buruz. José Miguel Nuin Moreno jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Errenta bermatuaren kudeaketari egindako kritikari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, errenta bermatuaren jasotzaileen eta nekazaritzako lanekuaren faltaren arteko harremanari buruz UAGN sindikatuak egindako adierazpenei buruzkoa. Rubén Velasco Fraile jaunak egin du (11. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da gaueko txandako langileen lan baldintzak aldatzeko negoziazioa has dezan.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2018ko urriaren 2an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da gaueko txandako langileen lan baldintzak aldatzeko negoziazioa has dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasun Departamentuak hasi beharreko negoziazioak has ditzan mahai sektorialean, gauetako txandan lan egiten duten pertsonen lan baldintzak hobetu daitezzen, kontuan hartuta txanda horrek horien osasunean dauzkan ondorio negatiboak eta beste autonomia erkidego batzuetan hartutako erabakiekin bat etorritz.

Horrenbestez:

– Epe zuhur batean aipatutako txanda kentzeko aukera eta komenigarritasuna aztertuko du, bai eta erabaki horrek eragingo lituzkeen antolakuntza-neurriak ere.

– Halaber, prozeduratik at dauden eta zerbitzuaren beharren arabera anitzak diren “lanaldi bereziak” aztertuko ditu bere osotasunean, zuzentzaile ezberdinak aplikatzen baitzaizkie, eta horiek konparaziozko bidegabekeriak ekartzen baitituzte ordu- eta ekonomia-konpentsazioetan.

Kasuko akordioak lortzen direnean, horien berri emanen zaio funtzio publikoko mahai orokorrari”.

Iruñean, 2018ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da glukosaren monitorizatzeko jarraiturako sistemak eta glukosaren flash monitorizatzeko sistemak finantza ditzan.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2018ko urriaren 2an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da glukosaren monitorizatzeko jarraiturako sistemak eta glukosaren flash monitorizatzeko sistemak finantza ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du honako neurri hauek har ditzan ahal den epe laburrean:

1. Berehala aplikatzea gailu berri horien finantzaketa publikoa (glukosaren monitorizatzeko jarraiturako sistemena eta glukosaren flash monitorizatzeko sistemarena), Osasun Sistema

Nazionaleko Lurralde arteko Kontseiluak 2018ko apirilean hartutako erabakiaren bidez ezarritako indikazioetarako, Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu komunak zorroz jaso daitezkeen.

2. Kostu aldetik efizienteagoak diren osasun teknologien ebaluazioko irizpideak erabiltzea, osasun arloko gure profesionalen iritzia kontuan hartuta.

3. Gailu horien erabilerari buruzko berriazko prestakuntza ematea osasun arloko profesionali, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko laguntza espezializatuko zein oinarritzeko osasun laguntzako, eta gailu horiek jasotzea gure erki-degoan erabiltzen diren praktika klinikoko gidetan edo bide klinikoetan".

Iruñean, 2018ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da sei hilabeteko moratoria bat ezar dezan Eskubide Sozialetako Departamentuaren barruko fundazio publikoa sortzeko.

ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako Batzordeak, 2018ko urriaren 3an egindako bilkuran, ezetsi egin du Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko moziioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzen sei hilabeteko moratoria bat ezar zezan

Eskubide Sozialetako Departamentuaren barruko fundazio publikoa sortzeko. Moziioa 2018ko ekainaren 21eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Gerra Zibileko eta diktaturako artxiboak berreskuratzeari buruzkoa.

LAURA LUCÍA PÉREZ RUANO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Lucía Pérez Ruano andreak aurkeztutako galdera, Gerra Zibileko eta diktaturako artxiboak berreskuratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Pérez Ruano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer kudeaketa egin du Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak Gerra Zibileko eta diktaturako artxiboak, egun Guardia Zibilaren eta Nafarroako Unibertsitatea bezalako erakundeen eskuetan daudenak, berreskuratze aldera?

Iruñean, 2018ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Laura Pérez Ruano

Galdera, laborategi bateratuaren egoerari buruzkoa.*SERGIO SAYAS LÓPEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Sergio Sayas López jaunak aurkeztutako galdera, laborategi bateratuaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Sergio Sayas López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Nola azaltzen duzu laborategi bateratuaren egoerari dagokionez zure departamentuak erakutsitako utzikeria?

Iruñean, 2018ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Sergio Sayas López

Galdera, Nafarroako Gobernuak Elkarrizketa Sozialaren Kontseilua biltzeari buruz daukan aurreikuspenari buruzkoa.*CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Elkarrizketa Sozialaren Kontseilua biltzeari buruz daukan aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Garapen Ekonomikorako lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Nafarroako Gobernuak ba al du Elkarrizketa Sozialaren Kontseilua biltzeko asmorik?

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

Galdera, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenen eta Funtzio Publikoaren Estatutuaren nahiz garapen-arauen indarreko foru araudiaren arteko desadostasuna konpontze aldera bideratutako jarduketei buruzkoa.

MARIANO HERRERO IBÁÑEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mariano Herrero Ibáñez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenen eta Funtzio Publikoaren Estatutuaren nahiz garapen-arauen indarreko foru araudiaren arteko desadostasuna konpontze aldera bideratutako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Mariano Herrero Ibáñez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Administrazio Auzitegiak hainbat ebazpen eman ditu, toki entitateetako fun-

tzionarioek egindako aparteko orduen ordainketei dagokienez, errekurtsoen xede baitira.

Langileen Estatutuko lan arloko legeria aplikatuta. 35.1. artikulua.

Nafarroako toki entitateetako funtzionarioen ordainsariak arautzen dira Nafarroako Foru Komunitateko administrazioei aplikatzen ahal zaien araudian, 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuan eta 158/1984 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Toki entitateen zerbitzuko funtzionarioen aparteko orduen ordainsariak lehenago aipatutako foru legediak arautzen ditu, oinarrizko araudian. Nola da posible, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenari jarraikiz lan arloko Estatuko oinarrizko legedia aplikatzea?

Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenen eta Funtzio Publikoaren Estatutuaren nahiz garapen-arauen indarreko foru araudiaren arteko desadostasuna konpontze aldera, Nafarroako Gobernuak zer jarduketa egingen du Nafarroako toki entitateetako funtzionarioen nahiz Foru Komunitateko gainerako funtzionarioen aparteko orduen ordainsarien egoera eta ordainsarien muga kuantitatiboa arautzeko?

Iruñean, 2018ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Mariano Herrero Ibañez

Galdera, Familia Ugariet buruzko 2003ko Foru Legea eguneratzeari dagokionez Nafarroako Gobernuak daukan aurreikuspenari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Familia Ugariet buruzko 2003ko Foru Legea eguneratzeari dagokionez Nafarroako Gobernuak daukan aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparra jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ba al du Familia Ugariet buruzko 2003ko Foru Legea eguneratzeko asmorik?

Iruñean, 2018ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak Nafarroako ingurumena hobetze aldera aurreikusten dituen ekintzei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak Nafarroako ingurumena hobetze aldera aurreikusten dituen ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Marisa de Simón Caballero foru parlamentari andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki

Administrazioiko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Azken 20 urteetan nabarmen murriztu dira ingurune naturala zaintzearen eta jardunbide okerrak eragindako kalteak gainditzearen arloko giza baliabideak nahiz aurrekontu arloko baliabideak.

Egia bada ere Nafarroako azken aurrekontu orokorretan handitu egin direla xede horretarako partidak, beharrezkoa da aurrerabide are handiagoa egitea gure baso-azaleraren, naturgune babestuen, akuiferoen nahiz animalia-espezien egoera ebaluatzeari begira, eta horri buruzko ekintza zehatzak taxutzea eta garatzea.

Zer ekintza zehatz bultzatu gogo ditu Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak giza baliabideak handitzeari eta haien prestakuntzari eta ebaluazio, ordenamendu eta antolaketa arloko plan eta neurriei begira, Nafarroako ingurumena hobetze aldera?

Iruñean, 2018ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, 2018ko ekitaldirako soldata-masa gehigarriaren % 0,30 banatzeko prozeduraren irizpide eta helburuei buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 2018ko ekitaldirako soldata-masa gehigarriaren % 0,30 banatzeko prozeduraren irizpide eta helburuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak Lehendakari-tzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariari zuzendutako gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, 2018ko urriaren 11n egin beharreko kontroleko Osoko Bilkuran tramitatzeko:

Kontseilari zaren horrek eta LAB, CCOO eta UGT sindikatuek urriaren 4an sinatutako akordioaren arabera, zer irizpidetan oinarrituta eta zer helbururekin banatu da 2018ko ekitaldirako soldata-masa gehigarriaren % 0,30?

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, amatasun-prestazioak PFEZetik salbuetsita daudela adierazten duen Auzitegi Gorenaren epaia ikusita, bidegabeki jasotako diru-kopuruak itzultzeari buruzkoa.

MARÍA VICTORIA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Chivite Navascués andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, amatasun-prestazioak PFEZetik salbuetsita daudela adierazten duen Auzitegi Gorenaren epaia ikusita, bidegabeki jasotako diru-kopuruak itzultzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

María Chivite Navascués foru parlamentari andreak, Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak urriaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Auzitegi Gorenak PFEZetik salbuetsi ditu Gizarte Segurantzatik jasotako amatasun-prestazioak. Hartara, Auzitegi Gorenaren ustez, salbuetsita egon behar dute zenbait prestazio publiko; esate baterako, jaiotza, erditze edo adopzio anizkoitz, adopzio, norberaren kargurako seme-alaba eta zurtasun prestazioak.

Auzitegi Gorenaren epaia ikusita, Nafarroako Gobernuak itzuli egingen al ditu bidegabeki jasotako diru-kopuruak?

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, jakiteko zer balantzea egiten duen Gobernuak errenta bermatuaren eta Nafarroan pobreziaren aurka borrokatzearen aplikatutako bestelako neurrien eraginari buruz.

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer balantzea egiten duen Gobernuak errenta bermatuaren eta Nafarroan pobreziaren aurka borrokatzearen aplikatutako bestelako neurrien eraginari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarrekin José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Gobernuko lehendakariorde eta Eskubide Sozialetakoa kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2016tik hona % 7,8 jaitsi da Nafarroan pobrezia-tasa; estatuan, berriz, jaitsiera % 3,2ko izan da. Nafarroako pobrezia-tasa egun % 8,3koa den bitartean, Madrilekoa, non pertsonako BPGd-a handiagoa baita, bikoitza da, % 16,9koa baita.

Hori dela eta, hau jakin nahi dugu:

Gobernuak zer balantze egiten du errenta bermatuaren eta Nafarroan pobreziaren aurka borrokatzearen aplikatutako bestelako neurrien eraginari buruz?

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, Errenta bermatuaren kudeaketari egindako kritikari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Errenta bermatuaren kudeaketari egindako kritikari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak erantzun diezaion:

Errenta bermatuaren kudeaketa kritikatzan dutenei arrazista eta xenofobo deitzeaz gain, Gobernuak ba al du gai horretan autokritikarik egiteko asmorik?

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, errenta bermatuaren jasotzaileen eta nekazaritzako laneskuaren faltaren arteko harremanari buruz UAGN sindikatuak egindako adierazpenei buruzkoa.

RUBÉN VELASKO FRAILE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Rubén Velasco Fraile jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, errenta bermatuaren jasotzaileen eta nekazaritzako laneskuaren faltaren arteko harremanari

buruz UAGN sindikatuak egindako adierazpenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Rubén Velasco Fraile andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak ahoz erantzun dezan 2018ko urriaren 11ko Osoko Bilkuran:

Eduki xenofoboko errankizunen aurkako borrokaren ikuspuntutik, departamentuak zer deritze errenta bermatuaren jasotzaileen eta nekazaritzako lanekuaren faltaren arteko harremanari buruz UAGN sindikatuak egindako adierazpenei?

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Rubén Velasco Fraile